

País Valenciàrako hizkuntz politikaren oinarriak: 90eko hamarkada

Toni Mollà eta Vicent Pitarch

Gizartearen hizkuntz normalkuntzan -konbentzimendu intelektualetik eta hiritar engainamendutik- lanean dihardugun valentziarrok, aportatu nahi ditugu, Castelló-ko Arauen onespeneren 60. urteurrena ospatzen ari garen honetan eta Castelló-ko Huget Fundazio meritu onekoak enkargatutakoa betez, gure herriaren gaurko egoera soziolinguistikoari buruzko gure hausnarketak. Eta hori egiterakoan gidari izan dugun asmo positiboaren isla da, hain zuzen, koordenada guztiz errealisten arabera osaturiko hizkuntz politika eta plangintzarako oinarri proposamena.

Those of us from Valencia who are working on language standardization within society -from an intellectual conviction and civic delusion- would like to contribute our thoughts on the present-day linguistic situation in our country on this the 60th anniversary of the adoption of the Castelló ordinances and having been commissioned by the commendable Huget Foundation of Castelló. In doing so it is a reflection of a positive aim has been our guiding principle, namely, a basic proposal for a language policy drawn up untirely in tune with reality.

SARRERA

Gaurko gizarteak utopiko eta iraganminezko zat aurkezten ditu berez posible eta bideragarri diren erreibindikazio eta proiektuak. Horrexegatik, lehenik eta behin egin beharrekoa zera da: berez begibistakoak diren gauza batzuk begibistan jartzea eta sektore intelektual valentziarren ohizko sormen indarra berreskuratzea.

«Lehenik eta behin egin beharrekoa zera da: berez begibistakoak diren gauza batzuk begibistan jartzea eta sektore intelektual valentziarren ohizko sormen indarra berreskuratzea»

Ugari dira, ospakizun desberdinetarako beta ematen duen urte honetan, gure hausnarketak plazaratzea garamatzaten hari nagusiak: familia barneko hizkuntz transmisioa, zio desberdinen kariaz hondatua, berrosatu beharra, eta belaunaldi belaunaldi gertatzen den hizkuntz galerak eragindako valentziar hitzungoaren zahartze prozesua eten beharra; hizkuntz erabilerek nekazal giro aldera duten joera hautsi eta hizkuntz lurraldearen barne zatiketa berrosatzearen derrigortasuna, bi prozesu horiek dakarten hizkuntzaren erabileraren hiritartze eta trinkotzearekin; indarrean dauden erabileren eta, baita ere, hizkuntz ideologiaren joera atzerakoiak geraraztearen ezinbestekotasuna, hala nola 60 eta 70eko hamarkadetakoa valentzianismoak bere baitan zeraman modernitate eta aurrerakoitasunerako valentziar bidea (ber)eraikitzearen ezinbestekotasuna; valentziera, atzerakada kualitatiboa (hots, zein egokieratan erabiltzen den) eta kuantitatiboa (erabiltzaile kopurua) jasaten ari denean, hasierako idazpuru eta agurtzetarako nahiz Jai Nagusi egunetarako ikur-hizkuntza gisa soil-soilik erabiltzeak agerian uzten gehiegizko balorazio sinboliko eta konpensatzailea salatu beharra; eta, azken finean, herri moderno eta elkarkoi batean, hizkuntza kultur, gizarte eta ekonomi-integratzailearen tresna bilakatzeko engainamendua.

«Hizkuntz normalkuntzaren aldeko apostua, berez, egitasmo oso bat da: gauzak ezin dira bakarka egin. Beharrezkoa da, beraz, hil ala biziko proiektu bati (ber)ekitea»

Egoera zaila da, baiki. Hala ere, ez litzateke bidezkoa izango gure burua inolako fatalismo gerarazleren menpe uztea. Erantzunkizun amankomunari uko egiten diotenek dira, soil-soilik, etorkizunarekiko mesfidantza izan dezaketenak. Ez gara balizko munduetako onenean bizi, baina ez da pertsona batzuek (des)egin duten gauzarik beste batzuek (ber)egin ez dezaketenik. Egoeraren larritasunaz kontzientzia hartzeak bultzatu egin behar ditu, gure baitan, gizarte ardua eta sormena. Hizkuntz normalkuntzaren aldeko apostua, berez, egitasmo oso bat da: gauzak ezin dira bakarka egin. Beharrezkoa da, beraz, hil ala biziko proiektu bati (ber)ekitea. Europaren ikuspegi berriak eta teknologia aldakuntzak nazioarteko informazio-errealitate eta hedapen teknika berriak sortarazi dituzte, eta ez genituzke horiek

gutxietsi behar. Eleaniztasuna eta populazio multzoen kultur nortasunak babestu beharra dira antzematen hasi garen Europaren giltzarri ezinbestekoa eta inongo egitasmo politiko zentzuzkoak gutxietsi beharko ez lituzkeen balioak.

Orotarikoa eta kolektiboa da hizkuntz normalkuntzarako proiektua, valentziar guztiok eta bakoitza, lurraldeko toki guztiak eta bakoitza, eta gure lurraldean gauzatzen diren gizarte, kultur nahiz ekonomi iharduera guztiak eta bakoitza ukitzen dituenak.

Argitara eman diren hizkuntzaren gizarte errealitateari buruzko ikerketa eta araketa ofizialek aurkezten dute, País Valencià-ren kasuan, ikuspegi itxaropentsu bat, zeren ezaguera maila deigarriak isladatzen baitituzte (populazioaren %84,1ak ulertzen du, %55,2ak hitz egiten du, %27,1ak irakurtzen du eta %7,8ak idazten du, 1986ko Udal Erroldaren arabera), hala nola oso jarrera eta espektatiba baikorrak (1989tik 1990era, %12a igo da valentziera hutsezko TVV bat nahiago dutenen kopurua, eta, aldi berean, gaztelaniaz nahi dutenena %3a jaitzi da). Gauzak horrela, ez litzateke egokiera hori alferrik galtzen utzi behar. Baldin eta ez badira aldeko baldintza objetibo eta jarrera baikor horiek asetzen, inoiz baino handiagoa izango da zapuzketa.

Testuinguru honetan, hizkuntza gizartean heda dadin hiritar inizatibak bideratzeko beharra aitortzen dugu, bide batez eskatzen dugularik izaera instituzionaleko hizkuntz politika planifikatu bat. Gizarte zibilaren protagonismoarekiko mesfidantza izan da, hein handi batean, aginte politiko eta elkargune ez-gobernutarraren arteko nolabaiteko antagonismo baten zioa. Hizkuntz normalkuntzak, aitzitik, bi gizarte gune horien arteko lankidetzat zintzoa eskatzen du.

Gauzak horrela, txosten honek nahi duena zera da: hizkuntzarekiko plangintzak dakarren lan eskergaren aurrean publikoki jarrera hartzea, eta hizkuntz politika positibo bat gure ustez oinarritzen duten ardatzak zehazten laguntzea. Gure asmoa ez da, inondik ere, txosten honetan behin-betirako planik finkatzea; aitzitik, gure aportazioaren muga da, ares-tian esan bezala, hizkuntz sustapenerako politika eraginkor baten oinarritzko plangintzaren koordenadak eta ekinbide operatiboak agerian jartzea.

Atsegingarri litzaziguke pentsatzea instituzio demokratikoe-kin -Generalitatea aitzindari- batera goazela helburu amankomun baten bila: valentziera bihurtzea herri moderno baten hizkuntza bateratzaile eta moderno. Instituzio publikoen eta

«Eleaniztasuna eta populazio multzoen kultur nortasunak babestu beharra dira antzematen hasi garen Europaren giltzarri ezinbestekoa»

«Ikerketa eta araketa ofizialek aurkezten dute País Valencià-ren kasuan, ikuspegi itxaropentsu bat, zeren ezaguera maila deigarriak isladatzen baitituzte, hala nola oso jarrera eta espektatiba baikorrak»

sektore intelektualen eta hiritarren arteko lankidetzaz zintzoa da hizkuntz plangintzaren bermerik onena eta, zalantzarik gabe, osasungarria.

ABIAPUNTU OROKORRAK

Gizarte elebakartasuna

Hizkuntz plangintzaren helburu ukaezinezkotzat finkatu behar da gizarte elebakartasuna, hizkuntzaren erabilera publiko eta ofiziala gizarte osoan zabaltzeari dagokionez. Bestela esanda: helburua da hizkuntza bakar baten ofizialtasuna ezartzea, lurraldetasunari atxikituriko eredu baten arabera.

Valentzieraz hitz egiten ez dutenen eskubide pertsonalak bermatzeak ez luke, soilik, lurraldetasunari atxikituriko ereduak adierazitako eskubide kolektiboak hezurmamitzeko bide eman beharko, baizik eta hezurmamitze horren egonkortasuna ere bermatu beharko luke. Are gehiago: estatuaren aparailuak (Generalitatea buru) ezarri beharko lituzke etorkinen hizkuntz prestakuntzaren eskubidea bermatuko duten mekanismoak, hala nola herriaren kultur, gizarte eta ekonomi ihardueran beren erabateko integrazio soziolinguistikorako baliapideak.

Ahozko zein ikusentzuneko komunikabideetan hizkuntza sustatzea, ikastarotrinko eta metodologia egokiez hornituriko harreraguneak programatzearekin batera dira ikaspide ezinbestekoak, nahiz eta horrekin nahizko ez izan. Azken batean, eragile sozialak dira -ekonomikoak eta lanarekikoak nagusi- hizkuntza berri bat ikasi eta erabiltzeko oinarritzko bizgarriak. Eskolaren munduari dagokionez, murgiltze sistemen zabalkundeak -hezkuntzaren ikuspegitik egiaztatuak badira- bete-betean bermatzen du ikaslearen hizkuntz jatorriaren errespetua eta, horren ondorioz, herrian erabat integratzeko eskubidea.

Gaurko valentziarren komunikazio beharri zehar egokituriko hizkuntz politika batek bi alorretan batera bideratu beharko lituzke bere ahaleginak: gaztelaniaren irakaskuntza, elkarturiko hizkuntza eta gaztelaniaren lurraldeko estatuaren organoekiko harremanetarako lehentasunezko hizkuntza gisa; eta, baita ere, nazioarteko harremanetarako hizkuntzen irakaskuntza, halakorik behar duten gizarte sektoreentzat, lurraldeko hizkuntza erreferentetzat hartuta. Honek dakarrena da, logikoki, hezkuntz eredu ofiziala eta komunikabideen eredu (ber)definitzea, hizkuntz produkzioaren eta kontsumoaren beharri zehar berriaren arabera.

«Gure asmoa da, hizkuntz sustapenerako politika eraginkor baten oinarriko plangintzaren koordenadak eta ekinbide operatiboak agerian jartzea»

«Helburua da hizkuntza bakar baten ofizialtasuna ezartzea, lurraldetasunari atxikituriko eredu baten arabera»

Hala eta guztiz ere, lurraldetasunaren irizpidea gauzatzea eta hizkuntzak ikastekoa errespetatu beharreko norberaren eskubidetzat hartzea dira, gure ustez, País Valencià-ri egokitutako hizkuntzaren alorreko programa errealista bat bideratu behar duten alternatiba desberdinen funtsezko hautabide teorikoa. Ildo horretatik, hizkuntz politika egoki baterako ekinbidearen funtsezko ardatza da alor ideologikoa. Alor horren baitan dago, lehenik eta behin, gaztelania modernitate eta aurrerabiderako hizkuntzatzat hartzearen mitoa deusezteia, eta, horren ondorioz, valentziera iraganarekin, izaera kontserbadorearekin eta lokalismo isolatzailearekin identifikarazten duten aurrejuzkuak gainditzea. Horretatik guztiz urrun, herria modernizatu eta demokratizatze bideak erabat berezkoa du hizkuntz normalkuntzaren faktorea, lurraldeko hiri eta eskualdeen jerarkiarik gabeko (ber)egituraketak eta valentziar gizartearen maila desberdinen elkarketak ere berezkoa duten hein berean; País Valencià-ko hizkuntz gatazkak ez du klase banaketan oinarritutako jerarkia. Hizkuntza bilakatzen da, egoera horretan, prozesuaren elementu integratzaile eta mugiarazle funtsezkoena: gizarte elkartasunaren eragile bat. Ildo horretatik, sentsibilizatzeko politikarik onena izango da, noski, hizkuntz praktikarekin batera doana.

Orotako planteamendua

Soziopolitikazko planteamendu orotariko baten baitako beharizan kolektibotzat hartu behar da hizkuntz plangintza.

Ez da bidezkoa, beraz, hizkuntz politika, era lotsati batean, benefientzia asistentzialaren eremuko ihardueratzat hartzea. Ez da bidezkoa, halaber, erantzunkizuna norbanakoari egotzen dion politika, ez eta leialtasun militante soila eskatzea ere. Era berean, ez dira batere konponbide, noski, normalkuntzaren izenean eman ohi diren dirulaguntzatxo lotsarazle iraingarriak. Zera da egin beharrekoa: hizkuntzaren erabilera, berezkoa eta ez-berezkoa, eragingo duten gizarte baldintzak sorraraztea.

Ildo horretatik, hizkuntzaren erabilgarritasunezko balioetan oinarritu behar da hizkuntz plangintza positiboa, eta ez hainbeste hizkuntzaren ustezko balio sinbolikoetan. Eta komunikazioaren plangintzaren baitakoa behar du izan, ezinbestez, hizkuntz plangintzak, bai alor autonomikoan, bai eta autonomien arteko alorrean, estatukoan eta europarrean ere. Horren ondorioz, estatuak bere gain hartu behar du, ezinbestez eta arazo honekiko harremanik duten autonomia lurralde guztiekin lankidetzan, hizkuntz komunitate guztientzat hizkuntz politika egoki bat koordinatu eta finantziatzeko ardura. Ezinbes-

«Estatuaren aparailuak ezarri beharko lituzke etorkinen hizkuntz prestakuntzaren eskubidea bermatuko duten mekanismoak»

«Eragile sozialak dira -ekonomikoak eta lanarekikoak nagusi- hizkuntza berri bat ikasi eta erabiltzeko oinarritzko bizgarriak»

tekoa da, era berean, Europako Legebiltzarraren ebazpenek kontutan izan dezatela espainiar estatuaren aniztasun sozio-linguistikoa.

«Lurraldetasunaren irizpidea gauzatzea eta hizkuntzak ikastekoa errespetatu beharreko norberaren eskubidetzat hartzea dira, País Valencià-ri egokitutako hizkuntzaren alorreko programa errealista bat bideratu behar duten alternatiba desberdinen funtsezko hautabide teorikoa»

Horrexegatik, derrigorrezkoa da *Hizkuntza normalkuntzarako oinarritzko plan* bat (Pla Bàsic de Normalització Lingüística, PBNL), honako eginkizun hauek betetzeko: helburu orokorrak eta ihardueraren ardatz eta eremuak argi eta garbi zehaztea, alor anitzeko programak biltzea, oinarritzko aldiak zehaztea eta behar diren baliapideak lortzea, hiritarren eta instituzioen politika eremuak bereiztea eta haien arteko koordinabideak finkatzea.

Ildo horretatik, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak (Direcció General de Política Lingüística, DGPL) osatu beharko luke Hizkuntz Plangintzaren Liburu Zuri bat, derrigorrez honako hauek bildu beharko lituzkeena:

a) Lurraldeko atlas soziolinguistikoa bat, hala nola plangintza egoki baterako beharrezko diren datu enpiriko guztiak. Errealitatea ezagutzea ezinbesteko baldintza da, hartan lan egite-rakoan.

Atlas honek azterketa mugatuagoetarako bidea zabaldu beharko du -eskualde, udalerrri edota sektoreen alorrekoak-, eta kontutan hartu beharko ditu, oso bereziki, alerta gorrian daudenez, valentzieraren eremura berehala ekarri beharreko tokiak, honako hauek, gaur egun: Alacant, Castelló de la Plana, Port de Sagunt, Elx, Horta eta Valentzia, eta horietan dauden gaztelaniaren gune elebakarrak. Zehaztu behar dira, aldi berean, urjentsiaz landu behar diren eremu sektorialak.

b) Egoeraren balantzea, baliapide eta beharrianak zehaztea, perspektiba, irizpide eta jokabide politikoekin batera. Faktore horiek zehazterakoan, objetibitate eta gaitasun eza-guna duten gizarte teknikari eta zientzilariek parte hartu beharko lukete.

d) Soziolinguistikazko Dokumentazio eta Ikerketarako Zentru Autonomo bat sortzea. Zentru horrek datu bilgune bat sortuko luke, eta, datu horiek oinarritzat hartuta, planaren araberako ekinbide soziolinguistikoa gauzatzeko hautabideak eta teoria ardatzak finkatuko lirake.

e) Hizkuntz Normalkuntzarako Oinarritzko Plan bat (HNOP), bere baitan honako hauek bildu behar dituena: Komunikazio Plan Orokorra, helburu orokorrak eta helburu operatiboak, planaren araberako ihardueraren denbora banaketa, epe luzera (15-25 urtetara), epe ertainera (8 urtetara) eta epe

«Zera da egin beharrekoa: hizkuntzaren erabilera, berezkoa eta ez-berezkoa eragingo duten gizarte baldintzak sorraraztea»

laburrera (legegintzaldiaren arabera: 4 urtetara).

f) Sare politiko eta teknikoaren egitura, hizkuntz inplementazioarako diseinatua. Egitura horren baitan sartzekoak lirateke instituzioen eta eskualdeen arteko koordinabideak, eta, era berean, herri elkarte eta mugimenduarekikoak.

g) Hizkuntz Plangintzarako Kontseilu bat sortzea, hizkuntz politikarekiko inplikazio zuzenik duten profesionalak eta gizarte zibileko eta ekonomia munduko (enpresarien erakundeak eta sindikatoak) alor desberdinen ordezkariak biltzeko.

h) Profesionalen prestakuntzarako programa bat, teoria zein praktikaren mailakoa.

i) Emaizak neurtzeko mekanismoak, eta planaren araberrako ihardunbidea (ber)formulatzeko aukera ere eskainiko dutenak.

j) Eta kontura gaituzen hizkuntz sustapenaren dinamikaren eragina aldi berean eta batera gauzatu behar dela lurralde eta gizarte ehun osoan; horrela egin ezean, frustrazioaren arriskua izango lukete ekimen guztiek, aldian-aldikoez nahiz sektorialekin. Beraz, politika eraginkor batek arazo guztiak hartu behar ditu kontutan. Eta, gaurko egoeran, gizartearengan esku hartzeko -modu eraginkorrean, berak baititu behar diren baliabideak- ahalmenik duen ia bakarra Generalitatea da; eta ahalmen horrek bere erantzunkizuna dakar, zalantza izpirik ere gabe garrantzi guztiz handikoa.

Hizkuntzlegedia

Legearen alorrean, maila desberdineko lege eta xedapenak aldatu edota erreformatu -kasu bakoitzaren arabera- behar dira, eremu guztietan: autonomia lurraldean, estatuan eta Europan. Lege alorreko birmoldaketak bi helburu ditu: hizkuntzak, berezko eremu guztietan, lehentasunezko ofizialitatea eskura dezala, eta Espainiako Kongresu eta Senatua- ren, Europako Legebiltzarraren, Europako Kontseiluaren eta Komunitatearen Batzorde guztien eta bakoitzaren hizkuntz ofizialtzat erabat onartua izan dadila.

Horren ondorioz, indarrean dagoen Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua erreformatu beharra dago, hura baita gaztelaniaren Normalkuntzarako Lege zinezkoa estatu osoan, eta gaztelania ez diren hizkuntza guztiak haren menpe jartzen dituena. Erreforma horrek aldarazi behar ditu Konstituzio beraren beste zenbait artikulua, jarraian aipatzen direnak, besteak beste:

«Hizkuntzaren erabilgarritasunezko balioetan oinarritu behar da hizkuntz plangintza positiboa, eta ez hainbeste hizkuntzaren ustezko balio sinbolikoetan»

«Lege alorreko birmoldaketak bi helburu ditu: hizkuntzak, berezko eremu guztietan, lehentasunezko ofizialitatea eskura dezala»

«Indarrean dagoen Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua erreformatu beharra dago, hura baita gaztelaniaren Normalkuntzarako Lege zinezkoa estatu osoan, eta gaztelania ez diren hizkuntza guztiak haren menpe jartzen dituen»

a) 20.3 artikulua garatzea. Artikulu horren arabera, komunikabideetarako sarbidea bermatu behar du legeak, eta, era berean, estatuaren hizkuntz aniztasuna errespetatu.

b) Autonomia komunitateak federatzea galarazten duen 145.1 artikulua bertan behera uztea, eta 145.2 artikulua, elkarrekiko hitzarmen eta akordioak finkatzeko ahalmena ematen diona, garatzea.

d) 94, 95 eta 96 artikulua (III. Idazpuruaren Hirugarren Kapituluak) garatzea, Nazioarteko Hitzarmenak sinatu ahal izan daitezkeen. Eta, ildo horretatik, eskatzen den hizkuntz politikari egokitu behar zaizkio Europako komunitatearen baliapideak, oso bereziki jarraian zehazten diren hauek:

d.1) Mugako lurraldean 4. Biltzarre europarraren azken aldarrikapena (Zaragoza, 1987).

d.2) Europako Legebiltzarraren 192 (1988) ebazpena, "eskualdeen edo gutxiengoaren hizkuntzan Europan" izenburukoa, eta harekin batera doan egitasmoa: "Eskualdeen edo gutxiengoaren hizkuntzen agiria".

d.3) Europako Legebiltzarraren (1990) Ebazpena, katalanera europar hizkuntzatzat onartzen duena. Funtsezko zuzenketak esijitu behar dira hainbeste itxaropen zapuztu digun Ebazpen honetan, eta, zehazki, Europako instituzioetan katalaneraren ofizialtasun osoa onestea. Valentziako Gorteek, era berean, berehala onetsi behar dute katalaneraren ofizialtasun oso hori.

Bere garrantziarengatik, aparte aztertu beharrekoa da telebistari buruzko legedia, eta hartaz honako hauek adierazi behar ditugu:

e) Gure ustez, bai 10/1988 legea, maiatzaren 3koa, telebista pribatuari buruzkoa, bai eta arazo horri buruzko arau multzoa ere, sakonki egokitu behar dira, estatuaren erreallitate eleaniztunari erantzun ahal izan diezaioten.

Autonomia lurraldean, honako hauetatik hasi beharra dago legediaren berrikuntza:

f) País Valencià-ko Autonomia Estatutua erreformatzea (7. artikulua) eta koordinatzeko ahalmena ematen dizkiguten País Valencià-ko, Balearretako eta Kataluniako estatutuen artikulua garatzea.

g) Valentziar Estatutuaren 42. artikulua eta Balearretako Estatutuaren 17. artikulua garatzea, eta azken Estatutu ho-

nen bigarren xedapen gehigarria mamitzea, eta Kataluniako Estatutuaren 27. artikulua garatzea.

h) Valentzieraren Erabilera eta Irakaskuntzaren Legea erreformatzea, errealitate soziolinguistiko berriaren arabera. Erreformatz gaitu behar du lege horren anbiguitatea: normalkuntza hizkuntzaren erabileren despenalizazio soiltzat hartzea. Azken finean, justiziazkotzat hartu behar da valentzieraren lehentasuna. Horrela egiteak dakar, alde batetik, irakaskuntzaz, komunikabideez, Administrazio publikoaz eta Justizia Administrazioaz xedatutakoa berregitea; baina, baita ere, merkatalgintza, publizitate, ekoizpen eta lan mundura hizkuntzari sarbidea emango dioten lege-arau berriak ezartzea.

Hizkuntz komunitatearen ikuspegia

Plangintza koordinatua behar da, nahitaez, hizkuntz komunitate osoaren baitan, adostasun puntuak finka daitezen, politika eta gizarte alorretako aniztasunetik abiatuta, plangintza amankomun baterako bidean. Autonomia lurraldeen arteko mugak ez dute zertan oztopaturik orotariko lankidetzak bermatzen duten beharrezko lanabesak eskuratzeko bidea. Hizkuntza komunitatearen lurraldetzea ez da eduki akademikorik duen arazo filologiko bat. Aitzitik, gizartearen arazo bat da, lehen mailako lotura politikoak dituen.

Integrazio kolektiboak esijitzen du, beraz, ageriko lankidetzak lurralde administrazio desberdinen artean, eta ezinbesteko bilakatzen da lurraldeen arteko desorekei eta suizidiora baizik ez daramaten lokalismo banatzaile eta isolatzaileei aurre egiterakoan.

Gutziz ereduzkoa dugu, instituzioen eta lurraldeen arteko lankidetzari dagokionez, Neerlandieraren Batasunerako Hitzarmena. Esparru juridikoa, ikerketa, irakaskuntza, komunikabideak eta kultur industria, aholkularitza teknikoak eta gizartearen sentsibilizazioa dira nahitaez eta lehentasun osoz koordinatu beharreko alorrak.

Autonomi lurralde desberdinen artean estrategiak koordinatuta, ageriko hizkuntz politikak esijitu beharko liriteke estatuen zein Europaren eremuetarako, eta, era berean, hizkuntz amankomunaren nazioarteko sustapenari dagokionean.

Oinarritzko ardatza: ekonomia

Argudiorik eman gabe ere ulertzen da hizkuntzak, gizarte modernoan, gizarte bereizketaren funtsezko faktoreak direla,

*«Azken finean,
justiziazkotzat hartu
behar da valentziera-
ren lehentasuna.
Horrela egiteak
dakar, alde batetik,
irakaskuntzaz,
komunikabideez,
Administrazio
publikoaz eta Justizia
Administrazioaz
xedatutakoa berregi-
tea; baina, baita ere,
merkatalgintza,
publizitate, ekoizpen
eta lan mundura
hizkuntzari sarbidea
emango dioten lege-
arau berriak ezar-
tzea»*

«Plangintza koordinatua behar da, nahitaez, hizkuntz komunitate osoaren baitan, adostasun puntuak finka daitezzen, politika eta gizarte alorretako aniztasunetik abiatuta, plangintza amankomun baterako bidean»

«Esparru juridikoa, ikerketa, irakaskuntza, komunikabideak eta kultur industria, aholkularitza teknikoa eta gizartearen sensibilizazioa dira nahitaez eta lehentasun osoz koordinatu beharreko alorrak»

eta, aldi berean gizarte mugikortasun eta sustapenaren bideak ere badirela eta, halaber, merkatuak zehazteko faktorerik eraginkorrenak. Izan ere, ekonomiaren alorrean erabiltzen den hizkuntza behar bezala jakitea nahitaezko baliapidea da gizarte egituran goi mailako lekuetara iritsi ahal izateko. Horren ondorioz, ekoizte, banakuntza eta kontsumo prozesuetan eginkizun horiek betetzen ez dituzten hizkuntzak kondnaturik daude gizarte dinamikak baztertuak izatera eta, ziur aski, hiltzera.

Bestalde, ez luke inork ere ahanzi behar garapen teknologikoa eta ekonomikoa eta hizkuntz normalkuntza, gaur egun bederen, esijentzia osagarriak direla, txanpon baten bideak. Are gehiago kontutan hartzen baldin badugu kultur industria eta, batez ere, telekomunikazioak eta ikusentzuneak bilakatzen ari direla, egunez egun, garapen ekonomikoaren funtsezko alor, ohizko industria sektoreen garrantziraino iritsi arte, bai zuzeneko lanpostuak sortzeko gaitasunarengatik, bai eta negozio bolumenarengatik ere, eta gainerantzeko sektoreak bizkortzeko ahalmenarengatik.

Testuinguru berri honetan, estrategikoa da gure lurraldearen kokagunea, Europa berria diseinatzen duten ardatz ekonomiko berrien baitan, eta, horrengatik, desberdintasunaren alde jokatu beharko genuke. Europako botere ekonomikoa, lurraldeen ikuspegitik, era berri batean banantzen ari da eta estatu-nazioa krisian dago, eta egoera horrek mobilizatorako ahalmen izugarria ematen dio hizkuntz desberdintasunari. Behin eta berriro esanda, hizkuntz normalizazioak izan beharko luke hizkuntza amankomuna duten autonomia lurraldeen integrazioarako bidea, are gehiago garapen ekonomikoari dagozkion interesak ere amankomunean baldin badituzte.

Antolakuntza sarea

Planteatutako beharri zehazteko egokitutako antolakuntza gauzatu behar da. Nahitaezko abiapuntua zen Direcció General de Política Lingüística (DGPL) delakoa sortzea, nahiz eta hura Generalitatearen Lehendakariatzatik kanpo kokaturiko egoiteak -barruan egoteak ezinbesteko sailartekotasuna emango bailioke- eraginkortasun politiko eta soziala kentzen badio ere.

DGLP-z gain, estamentu ofizial guztiak biltzen dituen antolakuntza sarea bat eratu beharra dago, administrazio lokala, autonomikoa, estatuarena eta europarra sartuz, nahitaezkoa eta osagarria den hiritar sarea inolaz ere ordezkatzeko inongo asmorik gabe.

Ildo honetatik, udal erakundearen protagonismoa ere azpimarratzen dugu. Udala hiritarrarengandik gertu dagoenez, Administrazio Lokala funtsezko esparrua da hizkuntz politika garatzerakoan. Hizkuntz Politikari buruzko Informazio Batzordeak sortzea eta Aholkularitza eta Plangintzarako Zerbitzu Tekniko egokiak haien zerbitzura jartzea dira iharduerarako sare honen hari nagusiak. Haien iharduera nagusiak izan behar du, DGPL-k zehaztu beharko lukeen PGNL-en baitan koordinaturik, PGNL hura udalerrian kudeatzea eta tokian tokiko beharrezan araberako jokabide zehatzak gauzatzea. Beste helburu bat -lehenasunezkoa hau ere- udalerrietako inizatiba ez-instituzionalak koordinatzea izango litzateke, eta, bide batez, hiritarren partaidetza bultzatzea. Hala ere, Gobernuari dagokio -eta, beraz, DGPL-i- hizkuntz plangintza gauzatzea eta hura egingarri bihurtuko duten baliapide politika, aurrekontu eta teknika alorretako baliapideak eta, era berean, giza baliapideak jartzea.

ALORREZ-ALORREKO ERREIBINDIKAZIO ETA INIZIATIBAK

Erreibindikazio eta inizatiba orokorrez gain, oraingo lege-gintzaldiaren planifikazio estrategikoari begira oinarritzotzat jotzen ditugun eskaerak alorrez alor zehaztu nahi ditugu sinatzaileok.

Ikerketa eta azterketak

-Instituzioen eskuetan -DGPL-renetan nahiz Komunikabideen Zuzendaritza Nagusiarenetan eta Generalitatearen Lehendakariarenetan- dauden datu soziolinguistiko guztiak argitaratzea.

-Biztanleen Udal Erroldetan sartutako hizkuntz datuak aztertzea eta argitaratzea, behar diren erkaketak barne.

-DGPL-k hizkuntzaren benetako erabilerari buruz eginiko inkestaren emaitzak argitaratzea. Mapa soziolinguistiko gaurkotu bat osatzea.

-Dialektoen arteko jokabideei buruzko Azterketa bat egitea.

-Orain arte gauzaturiko hizkuntz sentsibilizazio kanpainen eraginaren neurtzea eta baloratzea.

-Hizkuntz Plangintzarako Biltzar bat egitea, ihardueraren ardatz nagusiak eta gauzatutako esperientziak aztertzeko.

-Topaketak eta Biltzarrak antolatzea, hizkuntz plangintzaren alorrean diharduten profesional zein teknikariei zuzen-

«Ekoizte, banakuntza eta kontsumo prozesuetan eginkizun horiek betetzen ez dituzten hizkuntzak kondenaturik daude gizarte dinamikak baztertuak izatera eta, ziur aski, hiltzera»

«Hizkuntz normalizazioak izan beharko luke hizkuntza amankomuna duten autonomia lurraldeen integrazioarako bidea, are gehiago garapen ekonomikoari dagozkion interesak ere amankomunean baldin badituzte»

«Direcció General de Política Lingüística gain, estamentu ofizial guztiak biltzen dituen antolakuntza sare bat eratu beharra dago, administrazio lokala, autonomikoa, estatuarena eta europarra sartuz»

«Oinarritzotzat jotzen dugu hiritar sarearekin koordinatzea eta hiritarren elkartzeko joera sustatzea. Gizartearen sostengua gero eta handiagoa den hein berean, arrakastatsua izango da instituzioen iharduera politikoa»

duak, plan baten araberrako iharduerarako funtsezko gaiak planteatzeko.

Legegintzaldirako plan estrategikoa

-Lurraldeko gune politiko eta sozial guztiak hartzen dituen Legegintzaldirako Iharduera Plan bat osatzea, urtez urte neur daitezkeen lan helburuak zehazten dituen. Instituzioetakoak ez diren profesionalek eta hiritar mugimenduak parte hartzea.

-Alorrez alorreko esparru eta egitasmoen araberrako helburuak zehaztea. Ahozko zein ikusentzuneke komunikabideak, kirolaren mundua, merkataritza eta lan mundua dira, aldezturretik dirudienetz, iharduerarako eremu egokienak.

-Hizkuntzaren Gizarte Kontseilu bat sortzea, Iharduera Plana eztabaidatu eta jarraitzeko gune gisa, eta, era berean, aipatu Planaren inguruko sentsibilizazioa bideratzeko.

-Hiritarren hizkuntz eskubideei buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpaina, eskubide horiek ezagutu, gauzatu eta errespetatuak izan daitezzen. Kanpainaren barruan, Hizkuntz Eskubideen Gidaliburua egin eta zabaldu beharko litzateke.

-Hizkuntzaren alorreko Aholkularitza Zerbitzu bat sortzea.

-Lurralde osoan Sare Politiko eta Tekniko bat sortzea: Hizkuntz Politikarako Zinegotziak, Udal Zerbitzuak. Lurralde eta alorkako koordinaziorako egitura sortzea.

-Hiritar sarearekin koordinatzea eta hiritarren elkartzeko joera sustatzea. Gizartearen sostengua gero eta handiagoa den hein berean, arrakastatsua izango da instituzioen iharduera politikoa.

-Plangintza estrategiko hizkuntz komunitatea osatzen duten beste lurraldeekin koordinatzea.

-Hizkuntza estatu osora hedatzea, hezkuntza sistemaren eta komunikabide publikoen bidez.

-Nazioarteko hizkuntz sustapena, eta ez soilik unibertsitatearen esparruan, baizik eta, aldi berean, gure lurraldearekiko harreman ekonomikoak eta turistikoak dituzten hiri eta lurralde nagusietan.

BEREHALA GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK

Komunikabideak eta kultur industria

-Generalitatearen nahiz Estatuaren menpekoak diren eta emisio eremutzat País Valencià delakoa duten jabego pu-

blikoko idatzizko, ahozko eta ikusentzunezko komunikabide guztiak valentzianizatzea. Horixe izango litzateke, gainera, kultur industria valentziarra, zuzenean zein zeharka, bultzatzeko erarik onena: bikoizketa eta sonorizazio estudioak, diskografia, zinematografia, publizitatea, diseinu grafikoa, etab.

-Ràdio 4 zena berriz irekitzea.

-Albiste Agentzia bat sortzea, valentzieraz ari diren komunikabideen barne kontsumorako zein lurraldearen irudi valentziar bat esportatzeko.

-Jabegopribatukokomunikabideakvalentzianizatzeko Plan Berezi bat osatzea, dirulaguntzak, publizitatea eta laguntza teknikoak barne dituen.

-Elkarrenganako jokabide amankomuna, Kataluniako, Balear Uharteetako eta País Valencià-ko komunikabide -idatzizko, ahozko eta ikusentzunezkoak- publikoen aldetik, datozen erronka makrokomunikatiboen aurrean gure hizkuntz komunitatearen bideragarritasuna bermatzeko ezinbesteko dugun komunikazio eremua gauzatzuz joatearren.

-Autonomia Gobernuen politika bateratua, zineraren ekoizpenari, bikoizketari eta komertzializazioari dagokionez. Telebista publikoekin lankidetzan, noski. Arreta berezia jarri behar zaio bideo komertzialari.

-Hizkuntza irakasteko oinarritzko metodo bat, komunikabide anitzetarakoa, osatzea eta komunikabide publiko guztien bidez ematea.

-Publizitaterako Plan Berezi bat osatzea.

-Herri eta eskualdetako komunikabideen valentzianizatzea bultzatu eta laguntzea.

-Antzerki zirkuitu publikoen programazioa arautzeko hizkuntz irizpideak zehaztea.

-País Valencià, Balear Uharte eta Kataluniako antzerki zirkuituen trukaketak hitzartzea.

-Antzerkia, zinema eta kantagintza valentzianizatzeko Plan bat osatzea, profesionalen prestakuntzarako laguntzak barne dituen.

-Hizkuntz kodifikazioari dagokionean, Kataluniar Ikaskuntza Institutua (Institut d'Estudis Catalans, IEC) eta Valentziar Filologia Institutua (Institut de Filologia Valenciana, IFV) erakun-

«Generalitatearen nahiz Estatuaren menpekoak diren eta emisio eremutzat País Valencià delakoa duten jabego publikoko idatzizko, ahozko eta ikusentzunezko komunikabide guztiak valentzianizatzea beharrezkoa da»

«Irakaskuntza ertainaren eta oinarrizkoaren hezkuntz kurrikulumaren ikasgai soil bat baino ez da valentziera gaur egun ere. Horrek, hizkuntz normalkuntzaren aldeko gertatu beharrean, hizkuntzaren egoeraren enblematikotasun hutsa indartzen du»

«Irakaskuntzaren Erreforma gauzatzearekin eta 93ko Europak planteatuko dituen hizkuntz beharrian berriekin batera, irakaskuntzari buruzko estrategia ofiziala berformulatu, eta berformulatze hori Hezkuntz Egitasmo Berri batean bildu beharko litzateke»

deak aholkuak emateko eta erabakiak hartzeko organuzat zehazki onestea.

-Komunikabideentzako Erreferentziazko Estilo Liburu bat argitaratzea.

-Argitaldariei laguntzea, liburutegi publiko eta eskoletakoentzatat aleak erosiz.

Argitalpen politikak bere baitan izan behar du, era berean, valentzierazko lanak beste hizkuntzetara itzultzea, kultur unibertsaltasunari valentzierak ematen diona ezagutu dadin, literatur sorkuntzari nahiz zientzia eta teknikaren alorrari dagokienean.

Irakaskuntza

Alor ofizialetatik egiten diren irakurketak triumfalismoz gainezkakoak badira ere, irakaskuntza ertainaren eta oinarrizkoaren hezkuntz kurrikulumaren ikasgai soil bat baino ez da valentziera gaur egun ere. Horrek, hizkuntz normalkuntzaren aldeko gertatu beharrean, hizkuntzaren egoeraren enblematikotasun hutsa indartzen du.

Horrek, Irakaskuntzaren Erreforma gauzatzearekin eta 93ko Europak planteatuko dituen hizkuntz beharrian berriekin batera, esijitzen du irakaskuntzari buruzko estrategia ofiziala berformulatzea, eta berformulatze hori Hezkuntz Egitasmo Berri batean bildu beharko litzateke. Egitasmo hori, norberaren poliglotismo baten beharrean oinarriturik, abiatu beharko litzateke, arestian esan dugun bezala, lurraldearen hizkuntza irakaskuntzaren eta irakaskuntzarako hizkuntzatzat hartzetik.

Valentzierazko irakaskuntzaren inguruan eginiko lana ikaragarria da, eta, esaten genuenez, hezkuntzaren eremua bera gainditzen duten eragina du. Prozesu horri eusten badiogu ere, valentzierazko irakaskuntza ildoen hezkuntz ereduaren eraginkortasun politikoa eztabaidan jartzen dugu.

Eredu honek ez du bermatzen hizkuntzaren ezagueraren eta erabileraren unibertsalizazioa, baizik eta betirakotu egiten du egoera arriskutsu bat: herria bi hizkuntz komunitatetan banatzea.

Beraz, helburu bat finkatu behar dugu, epe ertainerako baino ez bada ere; valentziera izatea irakaskuntza publikoaren hizkuntza bakarra. Epe laburrean, bestalde, hezkuntz eredu mistoak sartzen hasi behar dira. Alor honetan, Zentrua eta Herria Valentzianizatzeko Planak osatu behar dira, iharduera

akademikoa eta, bide batez, inguruko hizkuntza normaltzeko. Behin eta berriz gogorarazi behar da hizkuntzak ikasteko motibazioak, funtsean, eskolatik kanpoko alorretakoak direla. Ekin beharko litzaioke, gutxienez, plangintzarik gabeko politika honen ondorioei buruzko eztabaida publiko bati. Eta aztertu behar da zer den komenigarriagoa: ahalegin ofizialak valentzierazko ereduaren zabalkundearen gauzatzea ala ikastetxe guztiak era progresibo batean valentzianizatzea.

Batera zein bestera, gutxienez honako neurri zuzentzaile hauek hartu behar dira:

-Eskolaren eremuaren hizkuntz normalkuntzarako Plan Berezi bat osatzea.

-Matrikulazio garaiari begira, ikasleak, ikasleen gurasoak, udalak eta irakasleak sentsibilizatzeko kanpainak.

-Komunikabideen eta ikastetxeen arteko lankidetzarako kanpainak.

-Haur eta Oinarrizko Hezkuntzarako aurrakusten diren Erreformaren Programak (Murgiltzea, valentzierazko Irakaskuntza, Inkorporazio Progresiboa) Derrigorrezko Irakaskuntza Ertainera ere hedatu behar dira.

-Murgiltze Programa gaztelaniaren gune guztietara zabaltea.

-Bizgarri profesionalak (pedagogikoak, didaktikoak eta soldatarekin lotutakoak) arautzen dituen politika bat gauzatzea, irakaskuntzaren valentzianizaziorako proiektuan sartzen den irakasle goarentzat.

-CEP-ei eta ikastetxeei zuzendutako kanpaina, hezkuntz berrikuntzaren eta hizkuntz normalkuntzaren arteko loturei buruzkoa.

-Nork bere kabuz ikasteko zentruak sortzea, CEP-en (Irakasleen Zentruak) egituraz baliatuz, estrategia didaktikoen osagarri gisa.

-Irakaskuntzari buruzko politika gertutik jarraitzea, ikasleak goi mailako ikasketetara iristeko hizkuntz gaitasun osoa lordez, eta,aldi berean, valentzieraz bizitzeko motibaturik egon dadin, Unibertsitatean nahiz lan munduan.

-Irakasle goaren hasierako prestakuntza eta ondorengo prestakuntza etengabekoa berplanteatzea, beharizan sozio-linguistikoen arabera.

«Helburu bat finkatu behar dugu, epe ertainerako baino ez bada ere; valentziera izatea irakaskuntza publikoaren hizkuntza bakarra»

«Behin eta berriz gogorarazi behar da hizkuntzak ikasteko motibazioak, funtsean, eskolatik kanpoko alorretakoak direla»

«Irakaskuntzari buruzko politika gertutik jarraitu behar da, ikasleak goi mailako ikasketetara iristeko hizkuntz gaitasun osoa lor dezan, eta, aldi berean, valentzieraz bizitzeko motibaturik egon dadin, Unibert-sitatean nahiz lan munduan»

«Antolakuntza eta ekonomia eremuetako neurriak hartu behar dira valentziera instituzioen eta administrazioaren alor desberdinen hizkuntza bakarria izan dadin»

-Bergaitzeko irakasle Gorputz iraunkor berezi bat sortu eta prestatzea, eta, bide batez, alfabetatzerako eta hizkuntz valentzianizaziorako azpiegitura egokia sortzea.

-Gaztelania nagusi den eskualdeetako ikastetxeetan valentziera ikastea derrigorrezkoa izatea.

-Helduak alfabetatzeko eta gaztelaniaz baizik ez dakitenak valentzianizatzeko Plan Berezi bat osatzea.

-Eskolorduz kanpoko Ekintza Plan bat osatzea, hizkuntza-ren ikaskuntza indartzeko eta hizkuntza ahaztea galarazteko.

Administrazio publikoa

Aginte politikoaren hizkuntza -eta administrazio publikoa da botere publikoaren aurpegirik agerikoena- da, berez, balio instrumentala eta ospe soziala dituen hizkuntza. Beraz, antolakuntza eta ekonomia eremuetako neurriak hartu behar dira valentziera instituzioen eta administrazioaren alor desberdinen hizkuntza bakarria izan dadin.

Bestalde, ordezkari politiko demokratikoen hizkuntz jokabideak ere badu toki estrategiko bat, eredu gisa funtzionatzen baitu. Pentsatzekoa da, gainera, hizkuntza sustatzeko borondate politiko ageriko bat izango dela, bai alor politikoetan (Gorteetan, diputazioetan, udaletan), bai eta iharduera publikoan ere, ahozko zein ikusentzunezko komunikabideen aurrean, batez ere.

Horrez gain, urjentziazko neurri batzuk ezarri behar dira:

-Iharduera ofizialen lurralde hizkuntza baizik ez erabiltzea bermatzen duten ekinbideak gauzatzea (hizkuntzaren barne erabilerarako araudiak, langilegoaren kontratazioa, etab.), bai barne komunikazioetan (ahozkoak nahiz idatzikoak: inprimakiak, komunikazioak, jakinarazpenak eta izaera administrazioa duten bestelako informazioak), bai eta izaera instituzionalekoetan.

-Administrazio eta enpresa publikoetako langileen valentzianizaziorako Plan Berezi bat (trinkoa) ezartzea, lanpostu bakoitzaren hizkuntz eskakizunen arabera.

-Lanpostu publikoetara sartzeko edota bertan gora egiteko, eta lanpostuak oposizio bidez esleitzeko prozeduretan, Hizkuntz Irizpide batzuk finkatzea, hizkuntzaren ahozko eta idatzizko ezaguera bermatzeko eta lanpostua eskuratzeko behar diren hizkuntz eskakizunak arautzeko.

-País Valencià-n kokatutako administrazio publiko guztien errotulu publikoak valentzieraz idaztea, bai instituzioen irudi sinbolikoari dagozkionak, bai eta informazio orokorrekoak, bideak eta zerbitzu publikoak ere.

-Valentzierazko tradiziozko toponimia, toponimia ofizial bakartzat hartzea.

Lanaren eta merkatarizaren eremuak

Lanaren eta merkataritzaren munduen eremua da, arestian esan dugunez, normalkuntzaren giltzarria, normalkuntza horrek bere alde baitu langileen sostengu ordainezina.

Eremu honetarako nahitaezko neurri gisa, hauek proposatzen ditugu:

-Hizkuntz normalkuntzan sartzaren enpresa eta dendei zama fiskala arintzea eta zerga batzuk kentzea: errotulazioa, etiketatzea, barne eta kanpo erabilerarako gaiak, erabilera publikorako gaiak, etab.

-Kontsumitzaileak edozein dendatan valentzieraz ulertua eta informatua izateko eta hizkuntza ofizialean lan egiteko duen eskubidea arautzea.

-Hizkuntz sustapenerako Plan Berezia, kontsumorako eta astialdirako kultur gaiak (zinema, bideoa, argazkigintza industria) egiten eta banatzen dituzten enpresentzat, publizitatearen alorrekoentzat eta jokuaren merkatuarentzat (zozketak, loteriak, bingoak, etab.).

-Enpresen, profesionalen elkarten eta sindikatoen sentsibilizazio kanpaina, proiektu valentzianizatzaile bil daitezten. Administrazioaren aldetik, laguntza teknikoak ezartzea.

-Hizkuntz sustapenerako Plan Berezia, turismo politikaren alorrean.

-Hirugarren sektore aurreratuaren alorrerako hizkuntz politikaren Plan Berezia.

-Hizkuntz sustapenerako Plan Berezia teknologia berrien alorrean.

-Hizkuntz prestakuntzarako eta hizkuntza erabiltzeko eskubideak hitzarmen kolektiboetan sartzeari buruzkoak. Lanorduetan hizkuntz prestakuntzarako aukera ematea.

-Lanpostu publiko batera sartzeko hizkuntza derrigorrez jakin behar izatea. Zerbitzu publikoaren ideia funtsezkoa da lanpostu horietan eta, horren ondorioz, lurraldeko hizkuntza

«Ordezkaritza politikoa demokratikoen hizkuntz-jokabideak ere badu toki estrategiko bat, eredu gisa funtzionatzen baitu»

«Urjentsiazkoa da administrazio eta enpresa publikoetako langileen valentzianizazioarako Plan Berezi bat (trinkoa) ezartzea, lanpostu bakoitzaren hizkuntz eskakizunen arabera»

*«Lanpostu publiko
batera sartzeko,
lurraldeko hizkuntza
erabili behar da
jendearekiko zerbi-
tzuan»*

*«Gobernuaren
hizkuntz politika
bizkortuko delakoan
gaude, eta, hein
berean, Lehendakari-
tzaren beraren
lehentasunetan
sartuko dela. Ildo
horretatik, gogor
salatu behar dira
aurrenkotu murrizke-
tak»*

erabili behar da jendearekiko zerbitzuan.

Kirola eta astialdia

Bereziki larria da eremu hauetan hizkuntzaren erabileraren urritasuna. Alabaina, eremu hauen eraginak sustapen zuzen eta urjentziazkoa eskatzen du, haur eta gazteen munduan batez ere, irakaskuntzaren eragina indartzen baitu alor honetan egiten denak.

Nolanahi ere, neurri hauek hartu behar dira, ahalik eta azkarren, kirolaren munduan:

-Hizkuntz politikaren Plan Berezia, kirolaren bi aldeak -kirola egitea eta ikusle gisa parte hartzea- kontutan izanik, beti ere. Kirolaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzazuzena, noski, lortu beharrekoa da. Iharduera eremuak:

.Kirolari profesionalen mundua: klubak, entitateak, federazioak eta komunikabideekiko harremana.

.Zuzeneko ikusleak eta zuzenekoak ez direnak.

.Kirol kazetarien hizkuntz prestakuntzarako plana: erre-dakzioa, transmisioa eta lokuzioa.

-Hizkuntz politikaren Plan Berezia astialdiaren mundurako.

.Astialdiaren arloetatik, hauek aipatuko ditugu: egurasterako zentruak, elkarteak, bilguneak, kultur zentruak, kultur etxeak, udalekuak, etab. Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Gazteriaren Institutuaren lankidetzazuzena lortu behar da.

.Gazteriaren alorreko politika eta hizkuntz politika uzartzen dituzten materialeak eta baliapideak sortzeko kanpaina: argitalpenak, disko ekoizpena, bideoa, informatika, txangoak, etab.

AZKEN GOGOETAK

Akta Bakarraren Europara sartu bezperetan, valentziar gizarteak aukera du bere esku, bere hizkuntz desberdintasuna dela medio, Europa aurreratua kulturara, gizarte eta ekonomia alorretako garapenaren bidean jartzeko.

Ikuspegi horrek, ordea, ez gaitu itsutu behar. Izan ere, kezkgarria da egoera. Erantzuna da, beraz, eta herri esararen arabera, gaitza nolako, sendagaia halako. Horregatik ausartu gara valentziar gizarte osoa, Generalitatea aitzindari, guztion eginkizun batera -hil ala bizikoa bera- deitzera: hizkuntzaren eta gizartearen normalkuntzara, alegia.

Lehenbiziko neurri gisa, Gobernuaren hizkuntz politika bizkortuko delakoan gaude, eta, hein berean, Lehendakari-tzaren beraren lehentasunetan sartuko dela. Ildo horretatik, gogor salatu behar dira DGPL-i egiten zaizkion aurrenkotu murrizketak. Sakonki aldatu beharrekoa da murrizketa hori.

Konstatatzen dugunez, errespetagarria baino gehiago da gizarteak hizkuntzaren erabileraren alde egiten duen eskæ-ra. Gure erronka, kolektibo osoarena, aukera paregabe hau baliatzea da, eta gure hizkuntza behin betirako zabaltzea eta indartzea, gure herrian eta Europan.

Toni Mollà eta Vicent Pitarch
Soziolinguistak

Sociolinguists

*«Horregatik ausartu
gara valentziar
gizarte osoa, Genera-
litatea aitzindari,
guztion eginkizun
batera -hil ala
bizikoa bera- deitze-
ra: hizkuntzaren eta
gizartearen nor-
malkuntzara, alegia»*

Itzultzailea: Jorge Jimenez